

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Aritz/Burguete siendo las 20,00 horas del día 16 de junio de 2025, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión ordinaria con la asistencia de los Sras./es. Concejales/es, D^a. Ana Azanza Burusco, D. José Irigaray Gil, D^a. Andrea Juandeaburre Serna y D. Eder Martínez de Miguel, bajo la presidencia del alcalde D. Unai Irigaray Osés, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE SESIÓN DE 7 y 11 DE ABRIL DE 2025.

En relación con el acta extraordinaria de 11 de abril, aclarar que cuando se habla de Ana Beaumont, se refiere a Ana Urtasun Beaumont.

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar las actas de sesión de 7 y 11 de abril de 2025.

2. CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA EMITIDAS DESDE EL 5 DE ABRIL HASTA EL 13 DE JUNIO DE 2025.

Informa el alcalde Sr. Irigaray Osés, del contenido de las Resoluciones de Alcaldía desde el 5 de abril hasta el 13 de junio de 2025, que constan en el expediente de la sesión, dándose los miembros de la Corporación por enterados.

3.- APROBACION DEFINITIVA EXPEDIENTE DE CUENTAS DE 2024.

Actúa el Ayuntamiento en funciones de Comisión Especial de Cuentas

Toma la palabra el alcalde, Sr. Irigaray Osés, que informa que en el periodo de exposición del expediente de cuentas del ejercicio 2024 no ha habido alegaciones al mismo por lo que procede su aprobación definitiva. Añade que el pasado 11 de abril se celebró el batzarre donde se informó de las mismas a los asistentes.

La Corporación acuerda por unanimidad aprobar definitivamente el expediente de cuentas del ejercicio 2024, trasladando el expediente a la Dirección General de Administración Local a los efectos oportunos.

4. ACUERDO RATIFICACIÓN CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DESTINADA A ENTIDADES LOCALES DE NAVARRA EN RIESGO DE DESPOBLACIÓN, PARA LA ADECUACIÓN Y MEJORA DE ESTRUCTURAS Y ESPACIOS DEPORTIVO/COMUNITARIOS LOCALES: RENOVACIÓN LUZ DEL FRONTÓN.

Toma la palabra el Sr. Alcalde, D. Irigaray Osés, quien informa que hace aproximadamente un mes se publicó en el Boletín Oficial de Navarra una convocatoria de ayudas dirigidas a Entidades Locales en Riesgo de Despoblación, destinada a la adecuación y mejora de estructuras y espacios deportivos.

Señala que dichas actuaciones no se encuentran contempladas en el presupuesto vigente, por lo que, en caso de resultar beneficiarios de la subvención, sería necesario realizar una modificación presupuestaria para llevarlas a cabo.

Añade que la última reforma del sistema de iluminación del frontón data del año 1979, y que desde entonces ha sufrido un notable deterioro. En la actualidad, únicamente funciona la mitad de los focos, encontrándose el resto averiados. La actuación prevista consistiría en

la renovación de las luces, mediante un sistema más sostenible y subraya que se trata de una intervención necesaria.

Explica que la ayuda ha sido convocada por el Departamento de Cultura y Turismo, en el marco de las ayudas NEXT GENERATION, que supondrían una subvención del 100%, por lo que el Ayuntamiento no tendría que asumir el coste de la inversión. Informa además de que la memoria técnica ha sido encargada al electricista D. Alejandro Belzunce, ascendiendo el presupuesto a 21.397€.

Interviene la concejala Sra. Juandeaburre Serna, preguntando si sería posible modificar la memoria para incluir en ella la reparación o adquisición de una nueva red para el frontón. Contesta el alcalde que se hablará con los técnicos del Gobierno de Navarra para ver si hay posibilidad de incluirlo.

La secretaria municipal indica que, al tratarse de una actuación centrada en la instalación de alumbrado, en principio no es posible incorporar nuevos elementos a la memoria presentada, si bien consultará con el departamento correspondiente por si hubiera alguna opción.

La Sra. concejala Juandeaburre Serna toma nuevamente la palabra, indicando que solicitó presupuesto para la sustitución de la red del frontón, cuyo coste sería de aproximadamente 4.000€, IVA incluido. El alcalde indica que, en caso de afrontar esta actuación, sería necesario realizar una modificación presupuestaria específica, cuestión esta ratificada por la Secretaria.

Finalmente, se propone ratificar la memoria presentada, explorar nuevas vías y proceder al cambio de la red.

La Corporación acuerda por unanimidad, ratificar la solicitud de ayudas dirigidas a Entidades Locales en Riesgo de Despoblación, destinada a la adecuación y mejora de estructuras y espacios deportivos, aprobando a su vez la memoria presentada.

5. ACUERDO RATIFICACIÓN CONVOCATORIA AYUDAS EUSKARABIDEA PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA.

El alcalde Sr. Irigaray Oses, informa sobre la subvención anual convocada por el Servicio de Euskarabidea del Gobierno de Navarra y de la propuesta de las siguientes acciones relacionadas con la historia de Auritz/Burguete:

- Publicación en relación con el molino y la visita de San Francisco Javier: 3.000,00 €
- Publicación feria septiembre, relacionada con procesos de brujería: 1.700,00 €
- Publicación folleto sobre el asesinato recientemente conocido de prisionero del Batallón de Trabajadores 153: 300,00 €
- Acciones a realizar con la fundación Nabarralde en semana cultural, ayuda para paseo temático: 500,00 €
- Exposición sobre caza de brujas en Auritz/Burguete y resto Pirineo: 1.500,00 €
- Jornada, charla y debate: 4.000,00 €
- Concierto música: 1.000,00 €
- Talla cerámica 15 de agosto para niños, durante el Zikiro: 388,00 €
- Publicación sobre la historia de Auritz: 1.685,00 €
- Visitas guiada: 500,00 €

Se acuerda por unanimidad, ratificar las acciones y ayuda solicitada

6. ACUERDO ACCIONES SUBVENCIÓN PACTO DE ESTADO CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO.

Toma la palabra el Sr. Alcalde, D. Irigaray Oses, quien informa sobre las subvenciones gestionadas a través del Servicio Social de Base, concretamente desde el área de Igualdad, señalando que este año los ayuntamientos que no forman parte del Servicio de Igualdad, gestionan de manera individual las ayudas correspondientes.

Explica que, con cargo a dichos fondos, se puede financiar el curso de formación realizado por el personal técnica, político y social, centrado en la lucha contra la violencia de género. Asimismo, y en el marco de las fiestas patronales, se plantea financiar una pequeña campaña de sensibilización, que incluiría elementos como una lona, un punto morado y alguna otra actuación complementaria.

Por otro lado, propone la realización de algún tipo de actividad durante el verano, con el mismo enfoque.

Señala que las actuaciones deberán estar ejecutadas y abonadas antes del 30 de junio de 2025.

Informa también de que se ha puesto en contacto con dos empresas para organizar un teatro o acto cultural, en colaboración con el Ayuntamiento de Orreaga/Roncesvalles.

Añade que los pagos relacionados con las actividades destinadas a entidades locales, así como los relativos al personal político y técnico, han sido asumidos tanto por el Ayuntamiento de Auritz/Burguete como por el Ayuntamiento de Orreaga/Roncesvalles.

La Corporación acuerda por unanimidad:

1º.- Aprobar ejecutar las acciones propuestas financiándolas con las ayudas del pacto de estado contra la violencia de género.

7. APROBACIÓN FECHA DE BATZARRE.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses, que informa que, avanzando con el desarrollo del proyecto para recuperación de las antiguas defensas, el arquitecto Javier Beorlegui prevé terminar la redacción del mismo. Por ello, se propone realizar un batzarre que cuente con la presencia de los arquitectos redactores para exponer y explicar al vecindario el contenido del proyecto.

Se acuerda por unanimidad celebrar el batzarre el sábado 28 de junio de 2025 a las 11:00 h. en la Casa de Cultura, con el orden del día siguiente:

- Presentación proyecto Recuperación del legado histórico del recinto amurallado de Auritz/Burguete.

8. ACUERDO AGRADECIMIENTO AL ALCALDE DE PAMPLONA POR DEDICAR UNA PLAZA A D. HERMILIO DE OLORIZ.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses, que informa que en sesión de 16 de febrero de 2024, este Ayuntamiento remitió un escrito al alcalde de Pamplona solicitando dedicar una calle a don Hermilio de Oloriz, petición ya realizada en anteriores ocasiones, 28 de abril de 1920 y 20 de mayo de 2020. Finalmente, y tras esta última solicitud, la antigua plaza Ángel M.^a Pascual junto a la Comisaría Foral en Beloso Alto, va a denominarse Plaza Hermilio de Oloriz. A continuación, da lectura al siguiente texto que se transcribe a continuación:

El Ayuntamiento de Auritz/Burguete en relación a la decisión de nombrar una calle de esa Ciudad en honor a Hermilio de Oloriz y Azparren acuerda trasladar su agradecimiento al señor alcalde de esa Ciudad, don Joseba Asiron Sáez por haber tenido la sensibilidad de ello y haber cumplido el deseo reiterado de este villa, que sin duda redundará en la recuperación de nuestra historia y de la figura de personas claves de ella como fue el insigne pamplonés de nacimiento y auriztarra de vecindad D. Hermilio de Oloriz y Azparren

Tras lo cual, se acuerda por unanimidad, trasladar al alcalde del Ayuntamiento de Pamplona, Sr. Asiron el presente acuerdo para su conocimiento y efectos oportunos.

9. ACUERDO PARA LA INCORPORACIÓN DEL AYUNTAMIENTO EN EL PROYECTO PIRINEAUS III.

Toma la palabra el alcalde, Sr. Irigaray Osés, quien informa que, desde el año 2023, se viene trabajando en un proyecto cuyo objetivo principal es la recuperación de la calzada romana, así como la puesta en valor de los yacimientos arqueológicos romanos situados a ambos lados del Pirineo.

Este proyecto ha sido propuesto por Donazarre y este Ayuntamiento junto con la Sociedad de Ciencias de Aranzadi en el marco de la euroregión Euskadi-Aquitania-Navarra.

En relación con las actuaciones que se vienen desarrollando, señala las siguientes:

- Instalación de papelería interpretativa.
- Cursos de verano celebrados durante el mes de julio en Auritz/Burguete
- La presentación realizada el pasado 20 de mayo, relativa al hallazgo de un anillo idéntico al encontrado en el lado opuesto del Pirineo en el año 2018. Idéntico al encontrado en el lado opuesto del Pirineo en el año 2018.

Asimismo, informa que, para el proyecto Pirineus II, se incorporó el Ayuntamiento de Luzaide/Valcarlos, y que de cara al desarrollo del proyecto Pirineus III, se incorpora el Ayuntamiento del Valle de Arce.

El alcalde subraya que se trata de un proyecto de interés general, que trasciende el ámbito estrictamente arqueológico, al contribuir a la difusión y conocimiento de la localidad y de su patrimonio.

Por todo ello, propone que el Ayuntamiento continúe participando en el proyecto y se adhiera también al proyecto Pirineus III.

La corporación acuerda por unanimidad, continuar formando parte del proyecto Pirineaus III, dando traslado del acuerdo adoptado.

10. ACUERDO RELATIVO AL MONOLITO QUE RECORDARÁ EL PROCESO DE BRUJERÍA DE 1525.

El alcalde Sr. Irigaray Osés, cede la palabra al concejal Sr. Irigaray Gil que explica que Peio Iraizoz, escultor que va a diseñar el monolito recordatorio del proceso de brujería de 1525, ha presentado un esquema de cómo podría ser. Indica que le dijo en su día que no escribiera nada, ya que se llevaría toda la piedra y de escribir algo, tendría que ser en bilingüe. Sugiere que la piedra contenga únicamente la fecha y que el texto explicativo se

incluya en otro soporte, como una placa o panel aparte. También menciona el ejemplo de la placa existente en la fuente de Anozibar (Odieta), como referencia.

La concejala Azanza expresa su opinión favorable a que todo esté en bilingüe. Considera que, aunque este explicado en un panel, es importante que la piedra tenga contenido comprensible, si bien no está de acuerdo con poner más placas. Destaca el ejemplo del monumento de pelota ubicado en el frontón de atrás, como elemento bien visualizado. Sobre el diseño, propone hacer algún cambio ya que las cinco figuras parecen todas ellas hombres, cuando la realidad es que se trataron de cuatro mujeres y un hombre.

El alcalde Sr. Irigaray Oses, indica que incluir tanto texto en la piedra no le parece necesario y expone que, si se decide incluir una segunda piedra con el texto, esta debe colocarse al lado y en un tamaño pequeño. Propone que en el monolito principal se incluyan las dos fechas: 1525-2025, dejando la explicación para la chapa. Se abstiene respecto al diseño, aunque indica que le gusta el dibujo en general y subraya que todo debería estar listo cuanto antes, mejor para antes del 21 de septiembre.

La concejala Sra. Juandeaburre señala que la parte superior del diseño actual no es adecuada. Coincide con el concejal Irigaray en la propuesta de eliminar esa parte. También está de acuerdo con la necesidad de representar correctamente que se tratan de 4 mujeres y de un hombre.

El concejal Martínez indica que está de acuerdo con las observaciones expuestas por el resto de corporativos.

Se somete a aprobación la propuesta del diseño del monolito realizada por Peio Iraizoz, con las siguientes modificaciones:

- Eliminar el texto del monolito
- Incluir las fechas 1525-2025 en la piedra
- Diferenciar el género de las figuras, para que quede claro que son 4 mujeres y un hombre
- Modificar la postura de las figuras

Se somete a votación la propuesta de Peio Iraizoz y se acuerda por unanimidad:

Aprobar la propuesta presentada por Peio Iraizoz, con las modificaciones planteadas en el presente acuerdo, dando traslado del mismo al Sr. Iraizoz.

11. ACUERDO BASES PARA EL CONCURSO DE IDEAS PARA DOTAR DE UN NOMBRE A LA CASA DE CULTURA.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses, que siendo la casa de cultura un edificio singular y en el que se está llevando a cabo una rehabilitación, entiende que es un buen momento para darle un nombre y ratificar su identidad. Por ello, considera que sería bueno implicar a la ciudadanía para buscar entre todos un nombre, organizando un concurso con las siguientes condiciones:

“Concurso de ideas para dar nombre a la casa de cultura de la villa con el objetivo de darle entidad al edificio y que este siga siendo un edificio singular y punto de encuentro no sólo para los vecinos y vecinas si no para también para visitantes.

BASES

PARTICIPANTES

Podrán participar en este concurso personas mayores de 16 años, empadronadas en Auritz/Burguete. Lo podrán hacer de manera individual o de manera colectiva, pudiendo participar únicamente en una de las opciones.

TEMÁTICA

La temática de la propuesta del nombre es abierta. Serán rechazadas aquellas propuestas que sean ofensivas, que vayan contra la igualdad o que ensalcen el odio, la intolerancia, la violencia o cualquier otro tipo de discriminación que atente contra la dignidad de las personas. Serán rechazadas las propuestas que no tengan en cuenta la realidad lingüística de la villa.

Se valorará positivamente que la propuesta realizada tenga algún tipo de relación con la vida social, toponimia, historia y/o tradiciones de Auritz/Burguete.

INSCRIPCIÓN DE LAS OBRAS Y FASES DEL CONCURSO.

El plazo para la presentación de las propuestas al concurso comienza el 30 de junio y finalizará a el 17 de julio a las 14:00 horas.

Cada participante o equipo de participantes podrá presentar una única propuesta.

La inscripción es gratuita e incluirá la siguiente documentación.

Sobre A

- *Ficha con el nombre propuesto y una descripción a modo de justificación y defensa de las razones por las que el nombre propuesto es el idóneo para la casa de cultura.*

Sobre B

- *Ficha con los datos personales de la persona o grupo que ha realizado la propuesta.*

E-mail de presentación de los proyectos:

- *Correo: administración@burguete.es*
- *Asunto: Concurso nombre casa de cultura*
-

FALLO DEL JURADO

De entre las propuestas presentadas, tras pasar por un jurado, las tres propuestas que obtengan mayor puntuación, pasarán a la votación popular. Las tres propuestas serán públicas con las fichas que las personas proponentes han presentado en el Ayuntamiento.

La votación se desarrollará entre el 1 de agosto y el 15 de agosto.

Durante las fechas de exposición, las personas residentes en Auritz/Burguete mayores de 16

años podrán dar su voto en el ayuntamiento en horario de apertura al público, para la elección de una propuesta entre las tres finalistas.

La propuesta más votada obtendrá el primer premio, que será el nombre de la casa de cultura.

JURADO

El jurado, será designado por miembros del Ayuntamiento. En el que participarán la secretaria del Ayuntamiento, la técnico de euskera y el concejal de cultura del Ayuntamiento de Auritz/Burguete.

El fallo del jurado será inapelable; además, se reserva la facultad de declarar desierto el concurso

ACEPTACIÓN DE LAS BASES

La presentación de la solicitud implica la aceptación de las presentes bases y de la interpretación que de las mismas haga el Jurado convocado a tal efecto, cuyo fallo será inapelable.

Interviene el concejal Sr. Irigaray Gil que propone abrir el concurso, no solo al vecindario del municipio sino a todo el que quiera participar.

Tras el debate, se acuerda por unanimidad, aprobar las bases para el concurso de ideas, dejando participar al todo el mundo, si bien solo podrán votar las tres propuestas con más valoración, las personas empadronadas en el municipio.

12. ACUERDO BASES PARA EL CONCURSO DE IDEAS PARA EL DISEÑO Y EL PINTADO DE UN MURAL EN LA FACHADA FRONTAL DE LA CASA DE CULTURA.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Osés informando que, en el transcurso de las obras de la casa de cultura, Maite Astiz Larralde le planteó la posibilidad de realizar un mural en el hastial de la fachada principal. Entendiendo que es una buena idea se proponen las bases del concurso que constan en el expediente.

Interviene el concejal Sr. Irigaray Gil que manifiesta por un lado que, el premio le parece alto y por otro que, los plazos de las bases son justos.

La misma opinión expresan las concejales Sras. Azanza y Juandeaburre.

El concejal Sr. Martínez opina que, aunque se pierda la oportunidad del andamiaje que está instalado, se debe estudiar la manera de financiación, alternativas y trabajar el tema del tribunal que elegirá la obra a realizar.

Por todo ello, la Corporación acuerda por unanimidad dejar pendiente sobre la mesa el tema.

13.- INFORMACIÓN VARIA.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Osés que informa los siguientes temas:

Batzarre

Que el pasado 11 de abril se celebró un batzarre en el que se expuso el expediente de cuentas, el proyecto de presupuestos y se presentó la memoria valorada para la elaboración del proyecto para la recuperación de las antiguas defensas. La asistencia fue notable y sirvió para compartir impresiones y recibir propuestas del vecindario.

La Corporación se da por enterada.

Parque intergeneracional

Que el pasado 30 de abril dos técnicos del Gobierno de Navarra realizaron una visita al parque intergeneracional una vez finalizada la justificación de la subvención. Felicitaron por la obra realizada y realizaron varias recomendaciones que se van a tener en cuenta y ejecutar en verano.

La Corporación se da por enterada.

Auzolan

El pasado 3 de mayo se realizó un auzolan en la villa en el que se bacheo caminos y se recogió basuraleza. Participaron 50 vecinos y vecinas y la jornada acabó con una comida en la sociedad La Cadena. Quiero destacar la gran participación, el trabajo realizado y el buen ambiente que predominó durante toda la jornada.

La corporación se da por enterada.

Mesa del Pirineo

Que este mes no se ha realizado la habitual reunión de la mesa con el Director General de Administración Local y Despoblación, el Sr. Rodríguez, y aprovecho para mostrar el malestar de la mesa y de este alcalde por la dejadez y la poca implicación del Gobierno Foral hacia el plan del pirineo y los representantes de la mesa del Pirineo.

Gran ruta de los Pirineos

Que el pasado 14 de mayo en la reunión de la UGET Pirineo se presentó el proyecto que alberga el PSTD denominado “La gran ruta del Pirineo”. En esa propuesta Auritz/Burguete salía muy desfavorecida ya que solo 1 de las 4 rutas pasaban con la localidad. Vista la situación se trabajó con el Ayuntamiento de Orreaga/Roncesvalles para realizar una serie de propuestas que mejoraran los trayectos de las rutas, se han tenido en cuenta las mismas y 3 de 4 rutas pasarán por nuestra villa.

Marca de ganado

El pasado 17 de mayo se marcó el ganado que pasta durante los meses de verano en los pastos comunales a excepción del ganado correspondiente a Iñaki Cilveti, que marcó el día 26 de mayo ya que justificó su ausencia durante la jornada.

Actuaciones forestales

Que se ha adjudicado a la empresa Zakarloa SI por valor de 5.770,12 € los trasmochos de los fresnos y por valor de 11.177,95 € los desbroces de Lindus y Gabarbide a la empresa Zibur S. L.

Parque micológico

El pasado 22 de mayo se celebró en el Ayuntamiento del Valle de Erro la reunión anual para el seguimiento del parque micológico. En la memoria presentada se ve una acusada bajada de los pases vendidos y adquiridos en Auritz/Burguete y se pidió que se reforzará la vigilancia y seguimiento de las personas recolectoras.

Gym Auritz

Que tal y como se acordó, una vez cobradas las inscripciones para la entrada en el gimnasio municipal se iba a realizar una reunión para decidir la compra de nuevo material. Se ha realizado una compra por valor de 1.771.6 € a la empresa Maniak Fitness.

Pirineaus II

Que el pasado 26 de mayo, en el marco del proyecto Pirineaus II y junto con la sociedad de ciencias Aranzadi y los alcaldes de Luzaide/Valcarlos y Donazarre se presentó el hallazgo de un anillo de características similares al de Zaldia encontrado en el yacimiento de Donazarre.

Técnico de euskera

Se ha mantenido una reunión con el resto de ayuntamientos que conforman el servicio de euskera para tratar el aumento del complemento del puesto de la técnica de euskera y estando de acuerdo todas las entidades que conforman el Servicio procederá a ello. En la aprobación definitiva de la plantilla orgánica, aparecerá reflejado el complemento de puesto con el tanto por ciento de aumento aprobado con carácter retroactivo desde el uno de julio de 2025.

Auritz 1525-2025

Que enmarcado dentro del proyecto Auritz 1525-2025, el 14 de junio se celebró una jornada de recuerdo durante todo el día. A la mañana se realizó un mercado de productores locales y durante la tarde se representó una obra de teatro y se presentó la película “Sorgina banaiz” producida Asisko Urmeneta que ha contado con la colaboración económica del Ayuntamiento. Destacar el buen ambiente de la jornada y la participación de los colectivos Aurizko Gazteria y Garaitzeko-Asi, así como de vecinos y vecinas, que trabajaron para que la jornada saliera adelante.

Cese de trabajo de Edurne de Miguel

Que el pasado mes cesa su actividad la agente de desarrollo de Cederna/Garalur, Edurne de Miguel tras más de 30 años de trabajo en la zona. Agradecer en nombre del Ayuntamiento el trabajo realizado durante estos años. La sustituirá Vanesa Pau.

Fiestas patronales

Que se ha propuesto para lanzar el txupinazo a los últimos alumnos de la ikastola; Agurtzane Urtasun, Peru Dufur, Alain Oyarbide e Irkus Oyarbide y que ha parecido buena idea ya que es el último año de la escuela y es buena ocasión para realizar un cierre digno y los últimos alumnos representan a todos los auriztarras que hemos estudiado en la escuela. Por otro lado, se ha autorizado la barraca solicitada por la juventud para sacar dinero para financiar las fiestas. Y aprovechando que estamos en víspera de que comiencen las fiestas, desear unas felices fiestas a todo el vecindario en las que el buen ambiente sea el protagonista

Se le concede la palabra al concejal Sr. Irigaray Gil, informa lo siguiente:

Toma la palabra el concejal Sr. Irigaray Gil que respecto a la mancomunidad de residuos Bidausi informa por un lado que, el pasado 27 de mayo se aprobó inicialmente la modificación de la ordenanza y las nuevas tasas que entrarán en vigor, tratándose de una actualización tanto de la ordenanza como de las tasas; y por otra parte, que el pasado 7 de mayo acudió junto con el técnico Jon Retegi a la entrega de premios del concurso escolar

sobre el reciclaje organizado por el Consorcio de Residuos de Navarra. En el mismo fue galardonado el trabajo de la escuela comarcal de Garralda titulado Piritrack.

Quiere agradecer a la profesora Olatz Goitisoló por su implicación en la organización del trabajo.

14.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se formulan.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 21:10 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2025eko ekainaren 6ko 20:00etan, Udala Bildu zen ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Ana Azanza Burusco, José Irigaray Gil, Andrea Juandeaburre Serna eta Eder Martínez de Miguel zinegotziak, bilkura buru alkatea, Unai Irigaray Osés, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

1.- 1.- 2025eko APIRILAREN 7ko ETA 11ko BILKUREN AKTEN ONESPENA
Apirilaren 11ko ez ohiko bilkuraren aktari dagokionez, Ana Beaumont dioenean Ana Urtasun Beaumont jarri behar du.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2025eko apirilaren 7ko eta 11ko bilkuren aktak onartzea.

2. 2.- 2025eko APIRILAREN 5etik EKAINAREN 13a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Irigaray Osés alkateak 2025eko apirilaren 5etik ekainaren 13a eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedienteetan daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

3.- 2024KO KONTUEN ESPEDIENTEAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Udala Kontuen Batzorde Bereziaren lanak eginez ari da.

Irigaray Osés alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du 2024ko kontuen espedienteak jendaurrean egon den bitartean ez dela alegaziorik egon, hortaz, behin betiko onetsi behar dira. Gaineratu du ekainaren 11n egin zen batzarrean informazioa eman zitzaizela bertaratuei.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2024ko kontuen txostena behin betiko onartzea eta Tokiko Administrazioaren Zuzendaritza Nagusira igortzea.

4. NAFARROAKO TOKI ENTITATEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA BERRESTEKO ERABAKIA, TOKI ENTITATEEN KIROK ETA KOMUNITATE EGITURA ETA TOKIAK EGOKITU ETA HOBETZEARREN: PILOTALEKUKO ARGIA BERRITZEA

Irigaray Oses alkate jaunak hartu du hitza. Aditzera eman duenez, duela hilabete inguru, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, despupulatzeko arriskuan dauden toki-erakundeei zuzendutako laguntzen deialdia argitaratu zen, kirol-egiturak eta -espazioak egokitzeko eta hobetzeko.

Adierazi du jarduketa horiek ez daudela indarrean dagoen aurrekontuan jasota eta, beraz, diru-laguntzaren onuradun suertatuz gero, beharrezkoa izango litzatekeela aurrekontuan aldaketa bat egitea, jarduera horiek burutzeko.

Gaineratu du frontoiko argiztapen sistemaren azken erreforma 1979. urtekoa dela, eta ordutik nabarmen okertu dela. Gaur egun, fokuen erdiak bakarrik funtzionatzen du, eta gainerakoak matxuratuta daude. Aurreikusitako jarduera argiak berritzea izango litzateke, sistema jasangarriago baten bidez, eta azpimarratu du beharrezko esku-hartzea dela.

Azaldu duenez, laguntza Kultura eta Turismo Sailak deitu du, NEXT GENERATION laguntzen barruan; laguntza horiek %100eko izango lirateke, eta, beraz, Udalak ez luke bere gain hartu beharko inbertsioaren kostua. Gaineratu du memoria teknikoak Alejandro Belzunce elektrikariari eskatu zaiola eta aurrekontua 21.397 €-koa dela.

Juandeaburre Serna zinegotziak galdetu du ea posible izango litzatekeen memoria aldatzea, bertan sartzeko pilotalekurako sare berri baten konponketa edo erosketa. Alkateak erantzun du Nafarroako Gobernuak teknikariekin hitz egingo dela, sartzeko aukerarik dagoen jakiteko.

Udal-idazkariak adierazi du, argiteriaren instalazioan oinarritutako jarduera denez, hasiera batean ezin zaiola elementu berririk gehitu aurkeztutako memoriari, baina dagokion sailari galdetuko diola, aukeraren bat dagoen jakiteko.

Juandeaburre Serna zinegotziak berriz ere hitza hartu du eta esan du frontoiaren sarea aldatzeko aurrekontua eskatu zuela. Horren kostua 4.000€ ingurukoa izango litzateke, BEZa barne. Alkateak adierazi du, ekintza honi aurre eginez gero, beharrezkoa izango litzatekeela aurrekontuan aldaketa zehatz bat egitea, eta hori idazkariak berretsi du. Azkenik, aurkeztutako memoria berrestea, bide berriak aztertzea eta sarea aldatzea proposatu da.

Udalbatzak aho batez erabaki du Despupulazio Arriskuan dauden Toki Erakundeentzako laguntzen eskaera berrestea, kirol egitura eta espazioak egokitu eta hobetzeko, eta aldi berean, aurkeztutako memoria onartzea.

5. EUSKARA SUSTATZEKO EUSKARABIDEAN DIRULAGUNTZA ESKATZEKO ERABAKIA BERRESTEA

Irigaray Oses alkate jaunak Nafarroako Gobernuak Euskarabideak urtero deitzen duen diru-laguntzaren berri eman du, eta Aurizko historiarekin zerikusia duten ekintza hauek proposatu ditu:

- Errotarekin eta Xabierko Frantziskoren bisitarekin zerikusia duen argitalpena: 3.000 €
- Iraileko ferian argitaratuko den lana, sorginkeria prozesuekin zerikusia duena: 1.700,00 €
- 153 Langileen Batailoiko preso hil berriari buruzko liburuxkaren argitalpena: 300,00 €
- Nabarralde Fundazioarekin aste kulturalean egin beharreko ekintzak, paseo tematikorako laguntza: 500,00 €
- Auritzen eta Pirinioko beste tokietan izandako sorgin-ehizari buruzko erakusketa: 1.500,00 €

- Jardunaldia, hitzaldia eta eztabaida: 4.000,00 €
- Musika kontzertua: 1.000,00 €
- Abuztuaren 15eko zeramika tailerra, haurrentzako: 388,00 €. Jarduerak eta eskatutako laguntzak berrestea erabaki da aho batez.
- Aurizko historiaren inguruko argitalpena: 1.685,00 €
- Ibilaldua gidatua: 500,00 €

6. GENERO INDARKERIAREN AURKAKO ESTATUKO ITUNETIK DATOZEN DIRULAGUNTZEI BURUZKO ERABAKIA

Irigaray Osés alkateak hartu du hitza eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bidez, zehazki Berdintasun Arlotik, kudeatzen diren dirulaguntzen berri eman du. Aurten Berdintasun Zerbitzuan ez dauden udalek dagozkien laguntzak banaka kudeatzen dituztela adierazi du. Azaldu du funts horien kontura finantza daitekeela teknikariek, politikoei eta bestelako eragile sozialek egindako prestakuntza-ikastaroa, genero-indarkeriaren aurkako borroka ardatz hartuta. Era berean, herriko jaietan, sentsibilizazio-kanpaina txiki bat finantzatzea proposatu da, besteak beste, lona bat, puntu more bat eta beste jarduera osagarriren bat. Beste aldetik, udan jardueraren bat egitea proposatu du, ildo beretik.

Adierazi du jarduerak 2025eko ekainaren 30a baino lehen egin eta ordaindu behar direla. Halaber, jakinarazi du bi enpresarekin harremanetan jarri dela antzerki edo kultur ekitaldi bat antolatzeke, Orreagako Udalarekin lankidetzan. Gaineratu du toki entitateei zuzendutako jarduerekin zerikusia duten ordainketak, bai eta pertsonal politiko eta teknikoari dagozkionak ere, Aurizko Udalak zein Orreagako Udalak bere gain hartu dituztela.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- Proposatutako ekintzak gauzatzea onartzea, eta genero-indarkeriaren aurkako estatu-itunaren laguntzekin finantzatzea.

7. BATZARRE EGITEKO DATA ONARTZEA

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta jakinarazi du, lehengo harresiak berreskuratzeko proiektuaren garapenarekin aurrera egingez, Javier Beorlegui arkitektoak proiektuaren idazketa amaitzea aurreikusten duela. Hori dela eta, batzarre bat egitea proposatzen da, proiektua idatzi duten arkitektoak bertan direla, proiektuaren edukia auzokideei azaltzeko.

Aho batez erabaki da batzarre egitea 2025eko ekainaren 28ko 11:00etan Kultur Etxean, hona gai zerrendarekin:

- Aurizko harresi-barrutiko ondare historikoa berreskuratzeko proiektuaren aurkezpena.

8. IRUÑEKO ALKATEAERI ESKERRAK EMATEA HERMILIO DE OLORIZI PLAZA BAT ESKAINTZEARREN

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta jakinarazi du 2024ko otsailaren 16ko bilkuran udal honek idatzi bat bidali ziola Iruñeko alkateari, Hermilio de Oloriz jaunari kale bat

dedikatzeko eskatuz; eskaera hori lehenago ere egin zen, 1920ko apirilaren 28an eta 2020ko maiatzaren 20an. Azkenik, eta azken eskaera horren ondoren, Belosogoitiko Foru Komisaldegiaaren ondoko Ángel M.^a Pascual plazari Hermilio de Oloriz plaza deituko zaio.

Ikusirik Iruñeko Udalak hiriko karrika bat Hermilio de Oloriz y Azparren jaunari dedikatu diola, Aurizko Udalak erabaki du bere esker ona adieraztea Iruñeko alkateari, Joseba Asiron Saez, erakutsi duen sentsibilitatearengatik eta herri honen nahia betetzeagatik. Zalantzarik gabe erabaki hori garrantzitsua izanen da gure historiaren eta esanguratsuak izan diren pertsonen irudiaren berreskurapenean, horien artean Hermilio de Oloriz y Azparren, iruindarra sortzez eta Auritzen bizi izandakoa.

Hortaz, aho batez erabaki da Iruñeko alkateari, Asiron j., erabaki honen berri ematea, jakin dezan eta dagozkion ondorioetarako.

9. UDALA PIRINEAUS III PROIEKTUAN SARTZEKO ERABAKIA.

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta adierazi du 2023az geroztik proiektu bat lantzen ari direla eta proiektu horren helburu nagusia dela galtzada erromatarra berreskuratzea eta Pirinioen bi aldeetan dauden aztarnategi arkeologiko erromatarrei balioa ematea.

Proiektu hau Donazaharre herriak eta Udal honek proposatu dute Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera, Euskadi-Akitania-Nafarroa Euroeskualdearen esparruan.

Garatuko diren jarduketan artean hauek nabarmendu ditu:

- Interpretazio-paperekin instalazioa

Auritzen uztailean egindako ikastaroak

Joan den maiatzaren 20an egindako aurkezpena, 2018an Pirinioen beste aldean aurkitutako eratzunaren berdin-berdina aurkitu baitzen hemen.

Halaber, jakinarazi du Pirineus II proiekturako Luzaideko Udalak sartu zela, eta Pirineus III proiektua garatzeari begira, Artzibarko Udalak ere sartuko dela.

Alkateak azpimarratu du interes orokorreko proiektua dela, eremu arkeologikotik haratago doana, herriaren eta bertako ondarearen zabalkundean eta ezagutza laguntzen baitu.

Horregatik guztiagatik, Udalak proiektuan parte hartzen jarraitzea eta Pirineus III proiektuarekin bat egitea proposatzen du.

Udalbatzak aho batez erabaki du Pirineaus III proiektuaren parte izaten jarraitzea, eta hartutako erabakiaren berri ematea.

10. 1525EKO SORGINKERIA PROZESUA GOGORARAZIKO DUEN MONOLITOARI BURUZKO AKORDIOA.

Irigaray Osés alkateak hitza eman dio Irigaray Gil zinegotziari, eta hark azaldu du Peio Iraizozek, 1525eko sorginkeria prozesua gogoratzeko monolitoa diseinatuko duen eskultoreak, nolakoa izan zitekeen eskema bat aurkeztu duela. Adierazi du esan ziola hitzik ez jartzeko, harri guztia hartuko baitzuen, eta zerbait idazteko, ele bitan izan beharko lukeela. Beraren ustez harriaren data baizik ez litzateke jarri beharko eta azalpena emango duen testua beste euskarri batean jartzea, adibidez plaka edo panel bat. Anozibarko iturrian (Odieta) dagoen plaka aipatu du, erreferentzia gisa.

Azanza zinegotzia dena ele bitan jartzearekin ados dago. Bere ustez, nahiz eta panel batean azalduta egon, garrantzitsua da harriak eduki ulergarria izatea, nahiz eta ez dagoen ados plaka gehiago jartzearekin. Atzeko frontoian dagoen pilota monumentuaren adibidea aipatzen du, ongi ikusten den elementu gisa. Diseinuari dagokionez, aldaketaren bat egitea proposatzen du, bost irudiek gizonak baitirudite, baina errealitatea da lau emakume eta gizon bat izan zirela.

Irigaray Osas alkateak adierazi du harrian hainbeste testu sartzea ez zaiola beharrezkoa iruditzen, eta azaldu du, testua duen bigarren harri bat sartzea erabakitzen bada, ondoan eta tamaina txikian jarri behar dela. Proposatu du monolito nagusian bi datak jartzea 1525-2025, eta azalpena txapan jartzea. Diseinuari dagokionez abstenitu egin da, baina marrazkia, oro har, gustatzen zaiola adierazi du, eta dena lehenbailehen prest egon beharko litzatekeela azpimarratu du, ahal izanez gero, irailaren 21erako.

Andrea Juandeaburre zinegotziak egungo diseinuaren goiko aldea ez dela egokia adierazi du. Irigaray zinegotziarekin bat dator zati hori kentzeko proposamenean. Halaber, 4 emakume eta gizon bat direla behar bezala irudikatzeko beharrezkin ados dago.

Martinez zinegotziak dio ados dagoela gainerako udalkideek azaldutakoarekin.

Peio Iraizozek egindako monolitoaren diseinu-proposamena onartu egin da, aldaketa hauek eginda:

- Monolitoaren testua kentzea.
- Harrian 1525-2025 datak jartzea
- Irudien generoa bereiztea, argi gera dadin 4 emakume eta gizon bat direla.
- Irudien jarrera aldatzea.

Peio Iraizozen proposamena bozkatu da eta honako erabaki da aho batez:

Peio Iraizozek aurkeztu duen proposamena onartzea, erabakian aipatutako aldaketak sartuta eta Iraizoz jaunari erabakiaren berri ematea.

11. KULTUR ETXEARI IZENA PARATZEKO IDEIEN LEHIAKETARAKO OINARRIEN AKORDIOA

Irigaray Osas alkate jaunak hartu du hitza eta esan du Kultur Etxea eraikin berezia izanik eta zaharberritzen ari direnez, uste duela une egokia dela izena emateko eta bere nortasuna berresteko. Horregatik, uste du egokia litzatekeela herritarrek inplikatzeko guztien artean izen bat bilatzeko, lehiaketa bat antolatuz baldintza hauekin:

Hiribilduko kultur etxeari izena emateko ideia-lehiaketa, eraikinari garrantzia emateko eta eraikin berezia eta elkargunea izaten jarraitzeko, ez soilik herritarrentzat, baita bisitarientzat ere.

OINARRIAK:

PARTE-HARTZAILEAK:

Lehiaketa honetan Auritzen erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonen parte har dezakete. Banaka edo taldeka egin ahaliko dute, eta aukeretako batean bakarrik parte hartu ahal izango dute.

GAIA

Izenaren proposamenaren gaia irekia da. Baztertu egingo dira proposamen iraingarriak, berdintasunaren aurkakoak edo gorrotoa, intolerantzia, indarkeria edo pertsonen duintasunaren aurkako beste edozein diskriminazio goraipatzen dutenak. Herriko errealitate linguistikoa kontuan hartzen ez duten proposamenak ez dira onartuko.

Positiboki baloratuko da egindako proposamenak Aurizko bizitza sozialarekin, toponimiarekin, historiarekin eta/edo tradizioekin zerikusirik izatea.

LANAK INSKRIBATZEA ETA LEHIAKETAREN FASEAK

Lehiaketan proposamenak aurkezteko epea ekainaren 30ean hasi eta uztailaren 17ko 14:00etan bukatuko da.

Parte-hartzaile bakoitzak edo parte-hartzaile talde bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du.

Inskripzioa doakoa da eta honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

A gutunazala

- *Proposatutako izena eta deskripzioa biltzen dituen fitxa, proposatutako izena kultur etxerako egokia izatearen zergatiak justifikatu eta defendatzeko.*

B gutunazala

- *Proposamena aurkezten duen pertsonaren edo taldearen datuak jasotzen dituen fitxa.*

Proiektuak aurkezteko helbide elektronikoa:

- *E-posta: administración@burguete.es*
- *Gaia: Kultur Etxeko izenaren Lehiaketa*

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Aurkeztutako proposamenen artean, epaimahai batetik pasatu ondoren, puntu gehien lortzen dituzten hiru proposamenak herri-bozketara pasako dira. Hiru proposamenak publikoak izango dira, proposamena egin dutenek Udalean aurkeztu dituzten fitxekin.

Bozketaren abuztuaren 1etik 15era egingo da.

Jendaurreko epean, Auritzen bizi diren 16 urtetik gorako pertsonen botoa eman ahal izango dute udaletxean, jendaurreko ordutegian, hiru finalisten artean proposamen bat aukeratzeko.

Botorik gehien lortzen duen proposamenak lehenengo saria lortuko du eta kultur etxeko izena izango da.

EPAIMAHAI

Epaimahaia Udaleko kideek izendatuko dute eta Udaleko idazkariak, euskara teknikariak eta Aurizko Udaleko kultura zinegotziak hartuko dute parte.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da; gainera, lehiaketa hutsik uzteko ahalmena izango du.

OINARRIAK ONARTZEA

Eskabidea aurkezteak berekin dakar oinarri hauek onartzea eta epaimahaiak horiei buruz egiten duen interpretazioa ere bai, eta horren erabakia apelaezina izango da.

Irigaray Gil zinegotziak hartu du hitza eta lehiaketa udalerriko biztanleei ez ezik, parte hartu nahi duten guztiei ere zabaltzea proposatu du.

Eztabaidaren ondoren, ideia lehiaketarako oinarriak aho batez onartu dira eta edonork parte hartu ahal izango du, baina udalerrian erroldatuta dauden pertsonak bakarrik bozkatu ahal izango dituzte baloraziorik altuena duten hiru proposamenak.

12. KULTUR ETXEAREN AURREALDEKO FATXADAN MURAL BAT DISEINATU ETA MARGOTZEKO IDEIEN LEHIAKETARAKO OINARRIEN AKORDIOA

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta adierazi du, kultur etxeko lanak egiten ari zirela, Maite Astiz Larraldekin fatxada nagusiko hastialean horma-irudi bat egiteko aukera planteatu ziola. Ideia ona delakoan espedientean ageri diren lehiaketa oinarriak onartzea proposatu du.

Irigaray Gil zinegotziak dio alde batetik saria gehiegi iruditzen zaiola eta bestetik oinarrietan aipatzen diren epeak estuegiak.

Azanza eta Juandeaburre zinegotziek iritzi bera dute.

Martinez zinegotziak uste du, jarrita dagoen aldamioa erabiltzeko aukera galdu arren, finantzaketa modua eta alternatibak aztertu behar direla, eta egin beharreko obra aukeratuko duen epaimahaiaren gaia landu.

Hortaz, udalbatzak erabaki du aho batez gaia mahaia gainean uztea.

13.- ASKOTARIKO INFORMAZIOA

Irigaray Osés alkateak hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

Batzarrea

Joan den apirilaren 11n batzarre bat egin zela, eta bertan kontuen espedientea, aurrekontuen proiektua eta antzinako harresiak berreskuratzeko proiektua egiteko balioetsitako memoria aurkeztu zirela. Parte-hartzea handia izan zen eta iritzia partekatzeko eta herritarren proposamenak jasotzeko balio izan zuen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Belaunaldiaren arteko parkea

Joan den apirilaren 30ean Nafarroako Gobernuak bi teknikariek belaunaldi arteko parkera bisita egin zutela, diru-laguntzaren justifikazioa amaitu ondoren. Egindako lanagatik zoriondu zuten. Kontuan hartu beharreko hainbat gomendio egin zituzten eta udan gauzatuko dira.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Auzolana.

Pasa den maiatzaren 3an auzolan bat egin zen herrian eta bertan bideetako zuloak estali eta zaborra bildu zen. 50 herritarrek hartu zuten parte eta jardunaldiaren bukaera bazkaria egin zuten La Cadena elkartearen. Azpimarratzekoa da parte-hartze handia, egindako lana eta egun osoan zehar nagusitu zen giro ona

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirinioeko Mahaia

Hilabete honetan ez da ohiko bilerarik egin Toki Administrazioiko eta Despopulazioko zuzendari nagusi Rodríguez jaunarekin, eta, bide batez, mahaia eta alkate honen haserrea adierazi nahi dut, Foru Gobernuak Pirinioetako planarekiko eta Pirinioetako Mahaiko ordezkarietako duen utzikeriagatik eta inplikazio eskasagatik.

Pirinioetako ibilbide Handia

Joan den maiatzaren 14an, UGET Pirinioen bileran, PSTD-a barne hartzen duen “Pirinioetako Ibilbide Handia” proiektua aurkeztu zen. Proposamen horretan Auritz oso kaltetua ateratzen zen, 4 ibilbideetatik bakarra pasatzen baitzen herritik. Egoera ikusita, Orreagako Udalarekin lan egin zen ibilbideak hobetzeko proposamen batzuk egiteko, horiek kontuan hartu dira eta 4 ibilbideetatik 3 gure hiribildutik pasatuko dira

Azienda marka

Joan den maiatzaren 17an markatu zen udako hilabeteetan herri larreetan bazkatzen duen azienda, Iñaki Cilvetiri zegokiona izan ezik, honek maiatzaren 26an markatu baitzuen, markaren egunean ez egotea justifikatu ondoren.

Baso Jarduerak

Zakarloa SL enpresari 5.770,12 €-tan esleitu zaizkio lizarren lepo-mozketak eta Zibur S. L. enpresari Lindus eta Gabarbidetako belar-sastrakak garbitzea, 11.177,95 €-tan.

Parke Mikologikoa

Joan den maiatzaren 22an egin zen Erroibarko Udalean parke mikologikoaren jarraipena egiteko urteroko bilera. Aurkeztutako memorian, Auritzen saldutako eta erositako txartelen jaitsiera nabarmena ikusten da, eta biltzaileen zaintza eta jarraipena indartzeko eskatu zen.

Gym Auritz

Erabaki zen bezala, udal gimnasioan sartzeko inskripzioak kobratu ondoren bilera bat egin zen material berria erostea erabakitzeko. 1.771,6 €-ko erosketa egin zaio Maniak Fitness enpresari

Pirineaus II.

Joan den maiatzaren 26an, Pirineaus II proiektuaren esparruan eta Aranzadi zientzia elkartearekin eta Luzaide eta Donazarreko alkateekin batera, Donazarreko aztarnategian aurkitutako Zalduaren antzeko eraztunaren aurkikuntza aurkeztu zen.

Euskara teknikaria

Euskara-zerbitzua osatzen duten gainerako udalekin bilera bat egin da euskara teknikariaren lanpostuko osagarriaren igoera aztertzeke, eta zerbitzua osatzen duten erakunde guztiak ados daudenez, horri ekingo zaio. Plantilla organikoaren behin betiko onespenean, lanpostu-osagarria agertuko da, eta igoeraren ehunekoa 2025eko uztailaren batetik aurrera onartuko da, atzeraeraginez.

Auritz 1525-2025

Auritz 1525-2025 proiektuaren barne, ekainaren 14an oroimenezko jardunaldia antolatu zen. Goizean bertako ekoizleen azoka egin zen eta arratsaldean zehar antzezlan bat egin zen eta Asisko Urmenetak ekoiztutako “Sorgina banaiz” filma aurkeztu zen, Udalaren laguntza ekonomikoarekin. Eguneke giro ona eta Aurizko Gazteria eta Garaitzeko-Asi kolektiboen parte-hartzea azpimarratu behar dira, baita jardunaldia aurrera ateratzeko lan egin zuten herritarrena ere

Edurne de Miguelen lan uztea

Joan den hilean utzi zuen bere jardura Edurne de Miguel Cederna / Garalurreko garapen-agentek, inguru honetan 30 urte baino gehiago lanean eman ondoren. Eskertu, Udalaren izenean, urte hauetan egindako lana. Vanesa Pau izango da haren ordezkoa.

Herriko festak

Txupinazoa botatzeko proposamena egin zaie ikastolako azken ikasleei: Agurtzane Urtasun, Peru Dufur, Alain Oyarbide eta Irkus Oyarbide, eskolako azken urtea delako eta itxialdi duina egiteko aukera ona delako eta azken ikasleek eskolan ikasi ditugun auriztar guztiak ordezkatzeko dituztelako.

Bestalde, jaiak finantzatzeko dirua ateratzeko gazteek eskatutako barraka jartzeko baimena eman da. Eta jaiak hasteko bezperan gaudela aprobetxatuz, giro ona protagonista izango duten jai zoriontsuak opa nahi dizkiegu bizilagun guztiei.

Hitza eman zaio Irigaray Gil zinegotziari eta honakoa esan du:

Irigaray Gil zinegotziak hartu du hitza eta Bidausi hondakinen mankomunitateari dagokionez, jakinarazi du, alde batetik, joan den maiatzaren 27an hasiera batean onetsi zirela ordenantzaren aldaketa eta indarrean jarriko diren tasa berriak, ordenantzaren eta tasen eguneratze bat izanik; eta bestetik, joan den maiatzaren 7an Jon Retegi teknikariarekin batera, Nafarroako Hondakinen Partzuergoak antolatutako birziklatzeari buruzko eskola-lehiaketaren sari-banaketara joan zela. Ekitaldian, Garraldako eskualdeko eskolaren Piritrack izeneko lana saritu zuten. Eskerrak eman nahi dizkio Olatz Goitisolo irakasleari, lanaren antolaketan izan duen inplikazioagatik.

14.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 21:10ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.